

BOTOA ERANTZUNKIZUNEZ EMATEA

Datozen hauteskunde autonomikoen aurrean

1. Azaroaren 30eko hauteskundek garrantzi handiko gertaera izango dira. Alde batetik, politika alorrean herritarrek zer duten nahiago adieraziko dute, eta bestetik eragin nabarmena izango dute gure herriaren bizitzan. Hauteskunde horietan izendatuak izango dira euskal Parlamentuko ordezkariak. Hauteskunde hauekin loturik dago, bestalde, Gobernu autonomiko berriaren eraikuntza eta Lehendakariaren izendapena ere.

Beharbada hauteskunde hauei ez diete denek, bakoitzaren eta gizartearen ikuspegitik beroiei dagokien giza balioa emango. Izango dira, beroietan elkarren aurkako istiluen eta borroken errainua besterik ikusiko ez dutenak, eta denen onarekin ikustekorik oso gutxi daukatela usteko dutenak. Baina aitortu beharra dago, hauteskunde hauekin loturik dagoela, neurri handi batean, hurbileko gure etorkizuna.

Horrelako egokieratan lehen ere egin izan dugun bezala, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Gotzaiok zenbait argibide ekarri nahi genizkizuke gogora, botoa eman beharrari eta botoa emateko eskubideari buruz. Ikuspegi etikotik eta gure herriarenganako maitasunak eraginik egiten dugu hori. Uste sendoa daukagu, izan ere, balio moralak zaintzea beti dela ongari herrien ongizaterako.

Oraingo une honen garrantzia

2. Bereziki larriak dira autonomi lurraldeak kultur, ekonomi, politik eta sozial alorrean dauzkan arazoak. Bideak aurkitu beharrak daude, eta berehala gainera, bai ikaskuntza libre eta dohazkoa izateko guztien eskubidea, bai euskal herriaren balio kulturalak -eta bereziki euskara bera- aitortuak izan daitezken. Lanik ezaren arazoa konpontzeko, zenbait neurri hartu beharra dago berehala ekonomi ihardunbidearen alorrean. Oraindik lortzeko dago, autonomi erakundeek garapen osoa politika eta administraritzako alorretan, baina bazterrerara utzi ez daitekeen helburua da hori, bizitza publikoa sendotu nahi bada. Erabateko bakea lortzera eramango gaituzten bideak aurkitzeko egiten den ohiua ez dago itozterik.



Luis Maria Larrea

Egoera honen aurrean, eta alderdi politikoen ugaritasuna eta hortik sortzen den elkarren arteko indarren egoera eta harremanak ikusirik, asko dira uste dutenak, bereziki zaila izango dela gure herria gobernatze lana; eta galdetu ere galdetzen dute, posible izango ote den gobernatze lan hori egitea.

Axolagabekeriak ez

3. Egoera honen aurrean, moral ikuspegitik, ez dago ontzat ematerik axolarik ezaren jarrera. Guztioi dagokigu, une honen garrantziaz jabeturik egon beharra. Zenbat eta larriagoak izan elkarteak dauzkan arazoak, orduan eta beharrezkoagoa da solidaritaz parte hartzea.

Ez dago egitaraurik ez alderdi politikoerik, pertsona, talde eta erakunde guztien eskubideak eta ametsak bere osoan beteko dituen ustea izan dezakeenik. Politikagintzak berekin ditu bere mugak. Horretan oinarritzen da, herritarrek -baita katolikoek ere- duten moral askatasuna, beren hautapen politikoak egitera-

koan. Baina askatasunaren oinarria den honek ez du axolagabekeria edota zapuzketarako aitzaki bihurtu behar.

Era askotakoak izan daitezke axolagabekeriarako arrazoiak: erosokeria, setakeria, nekea, nahasmendua. Hala ere ez dugu ahaztu behar, pertsona konkretuak axolagabe gelditu arren, hauteskunderen mekanismoak berdin emango diola bide bere egitaraua duen gobernu jakin bati. Bai abstentzioak bai parte hartzeak, erantzukizundun egiten du herritar bakoitza; bakoitzarena da, izan ere, elkarte politikoaren bizitza justiziari eta askatasunari buruz berak dituen jomugen arabera gutxi-asko izan dadin ahalegintzeko erantzukizuna.



Jose Maria Setien

Erantzukizunez jokatzea, eginkizun morala

4. Garbi dago, beraz, erabakia erantzukizunez hartzeko eginkizun morala. Bai botoa alderdi bati nahiz besteri ematea, bai botorik ez ematea, sakontasunez aztertu ondoren hartutako erabakiaren fruitu izan behar dute; eta nork bere kontzientziaren arabera, guztien onerako mesedegarriago izango dena aukeratzeko izan behar du azterketaren ondorioa.

Aukera bakoitzaren balioa, bere egitarauak guztien onari zerbitzu egiteko duen gaitasun-itxaropenetik neurtu behar da, hau da: nor bakoitzaren -batez ere behartsuenen- eta herriaren beraren giza eskubideei zerbitzu egiteko duen gaitasun-itxaropenetik. Alderdi politikoak berak ez dira beren azken jomuga. Gizartearen onaren zerbitzura egon behar dute, alderdi horiek indartzen dituztenen eta beroiei beren atxekimendua ematen diotenaren bestelako interesen gainetik.

Botoa emateko eskubidea erabiltzen dutenek badute askatasuna, beren kontzientziaren arabera berek nahiago duten alderdia edota egitaraua aukeratzeko; baina beharturik gelditzen

beren ustetan, justiziari askatasunean zerbitzu hobea egingo dio-
na aukeratzera. Herritar inork ez dauka eritzi praktikoa honi uko
egiterik.

Botoa kontzientziaren arabera ematea

5. Egitarau guztiek berekin dituzten mugapenak direla eta,
ez dago ateratzerik alderdi politiko guztiak moral aldetik ber-



Juan Maria Uriarte

dintsuak direlako ondorioa. Egitarau
edota proiektu guztiak ez dira berdintsu
onak edota berdintsu akasduak. Be-
roien aurrelari dabilzan pertsonak ere
ez dute konfiantza berdina merezi.
Horretan datza, hain zuzen, eritzi prak-
tikoa egiten asmatzeko zailtasuna.

Ez egitarau guztiek ez politiko
guztiak, ez dituzte era berean elkarrekin
lotzen: justiziaren eta askatasunaren es-
kakizunak; bere herriaren eskubideak
eta beste elkarrekiniko solidaritzaren
eskakizunak; nor bakoitzaren interesak
aitortzea eta gizarteko bizikidetzak jar-
tzen dituen morrontzak; finkatutako
erakundeei zor zaien errespetua eta politika eta administraritza
bizitzarako bide berriak bilatzea; herriak legez adierazitako bo-
rondatea aintzakotzat hartzea eta helburu radikalago eta utopi-
koagoak eskuratu nahia.

Herritarren eta herri osoaren politik alorreko heldutasuna-
ren neurria zerak ematen du: planteamendu hauek egin, beren
balioa eman eta beroien konponbiderako bakoitzak, bere kon-
tzientziaren arabera, zuzenbidezkoena eta egokiena izango dela
uste duen irtenbidea aurkitzeko gaitasunak.

Bake proiektuari botoa ematea

6. Botoa ematerakoan, bereziki kontutan izatekoak dira, al-
derdi politiko bakoitzak duen bake proiektua eta indarkeriari
buruz duen jarrera. Guztiz orokorra da herriaren ohiua bakea-

ren alde. Ez da inor ausartzen ez duela nahi esatera. Baina ez da aski hitzez aitortzea. Beharrezko da bake bideak aurkitzen ahalegintzea.

Askea den eta herriaren borondatea errespetatzen dakien gizartean ez dago bakerako beste biderik, herriaren gehiengoak onartzen duena besterik. Ez da demokrazi bideetan sartzen, bakeari buruz, herriak gehiengoaz adierazi duen borondatearen aurka, nor bere proiektua indarkeri bidez ezarri nahi izatea. Borondate hau, une historiko honetan, Estatutuan mamitua dago. Estatutua leialki onartu eta osorik egintzara eramatea, hori izango da bakea nai dutela dioten guztien zintzotasunaren eta egiatzotasunaren ezaugarria.



Jose Maria Larrauri

Hauteskunde kanpaina, herriaren zerbitzura

7. Botoa ematea bakarrik ez. Hauteskunde kanpainak berak balio etikoetan oinarritua egon behar du, batez ere egian, elkarrenganako errespetuan eta botoaren eskubidea eta eginkizuna erantzukizunez betetzen laguntzeko borondate zintzoan. Hauteskunde kanpainan ez da guztia zilegi; ez da aski besteren botoak eskuratu eta aurkako politik alderdiari kentzeko eragina izatea, ekintza bat zilegitzat jotzeko.

Kanpainak, bidezkoa izan dadin, hautatzaileen zerbitzura egon behar du; kanpainaren helburua, hautagaiek eskaintzen dituzten egitarau eta agintzariak hobeto ezaguturik, botoa jakinaren gainean ematea da. Egia-rik eta leialtasunik ez denean, okertu egiten da kanpaina eta aldendu, guztien onaren azken helburutik; orduan norberaren estrategiaren zerbitzura jartzen da, gezur-rraren eta maneiaketaren bidez agintea eskuratzeko. Hauteskundeetako propagandan joko zikinak erabiltzen direnean, murriztu egiten da politikagintzaren duintasuna, baita langintza hori egiten dutenena ere.

Hautagaiek eta kanpainaldian laguntzen dietenek, beroiek izan behar dute lehenengoak, herriaren onak eta herriaren arazoak konponbide aurkitu nahiak eragiten diela, egintzaz erakusten. Hauteskundeetako kanpainan zehar elkarri dioten errespetua eta leialtasuna izango dira, alderdi politiko guztiek, hauteskunde ondoren, guztien ona egiten laguntzeko prest daudenaren erazugarria.

Egizalotasunez eta neurritsu egindako kanpaina bera pauso bat da, besterik gabe, gizarteko bake bidean.

Etorkizunari begira

8. Bene-benetan, hauteskunde hauek bide bat izatea nahi genuke: gizarteko ongizatearen goragoko mugak lortzera eramango gaituen bidea, justizian, askatasunean eta elkarrekin ondo konponduz, gure herriak bizi duen ibilbide historiko honen barruan. Hauteskundeen ondoren -direnak direla emaitzak-, denoi dagokigun utziezinezko eginkizuna izango da, gizarte zuzenago eta anaikorra goa eraikitze lanari aurpegi ematea. Hauteskundeak lagungarri izan ditzagula, sakonago kontura gaitzen, herritar eta talde guztiok geure gain hartu beharreko erantzunkizuna dela lanigintza hori.

Kristauok badakigu, hori ez dala posible, gero eta gehiago bihotz-berritzen ez bagara Jainkoaren eta gizon-emakumeenganako maitasunera. Uste osoz sinesturik gaude, otoitza beharrezkoa dela bihotz zintzoa eta ona izatera iristeko. Horregatik eskari eta erregu egiten dizuegu, otoitz egin dezazuela, Jainkoak argitu ditzan gure kontzientziak egiaren argiaz eta benetako elkarmaitasunean jokatzeko gauza izan gaitzen.

Bilbo, Donostia, Gasteiz, 1986, azaroak 12

† Koldobika M., Bilboko Gotzaia

† Jose Maria, Donostiako Gotzaia

† Jose Maria, Gasteizko Gotzaia

† Joan Maria, Bilboko Gotzai Laguntzailea